

SAGARRA ETA SAGARDOAREN EGUNA ATZO

50 sagar klasetik gora eta plaza bete jende

Herriko hamabi sagardogileak eta lau sagar postu izan ziren.



Horrelakoxe itxura zuen atzo plazak eguerdi partean.

Tolarea sagardoaren kofradiak antolatutako festak arrakasta handia izan zuen. Antolatzaileetako batek "pintxo guztiak bukatu eta edalontziak ere gehiago ekarri behar izan ditugu" esan zigun.

Karpan, Hernaniko 12 sagardogileak, etengabe edalontziak betetzen; ondoan, pintxoak egin eta egin beste koadrila bat; Barkaiztegikoak sagar muztioa egin eta serbitzen; Iparragirrekoa *kixkia*



'Junbo' sagarra, gainean bitxi dituela. 840 gr.ko pieza.

nola erabili erakusten; eta mahaietan sagar erakusketa.

Zabaloenea baseritik 51 mota sagardo sagar eraman zituzten, Itxasburuk ere 40ren bat, bai... bazen nahiko kolore eta jenero. Ez alperrik, ordea, Itxasburukoaren hitzetan "mota hauek eta gehiago erabitzen di-tugu sagardoa egiteko garai-an". Manu Iradik "sagardo sagar urte ona eta mahai sagar urte oso ona" izan dela dio. Izango dugu hori probatzeko aukerarik, seguru asko. □

ONGINTZAKO LANGILEEN ERABAKIA

Gaixotasun altak seguru etako medikuek ematearen kontra daude

Langileen segurtasunaren orde, enpresen interesak bermatzen dituzte seguroek, langile batzordearen ustez.

HERNANIKO Ongintzako langileen batzordeak (LAB, CCOO eta ELA) aho batez agiri bat sinatu du gaixotasun altak seguru pribatuetako medikuek ematearen aurka. Hiru sindikatuek bat egin dute Ministro Kontseiluak hartutako erabakia salatzerakoan "osun sistema publikoari egiten zaion erasorik larrienetako-

tzat" juzgatzeko baitute. Gobernuak momentuz atzera bota du neurria, baina, Ongintzako langileen batzordeak *Mutuek* gaixotasunen eremuan muturra sartzeko ahalmena daraman araudia erretiratzea nahi du.

Enpresako Zuzendaritzari erabakia bidali diote eta mobilizazioetan parte hartzeko asmoa dute. □

II TRIKITIXA TXAPELKETA

Leire eta Itxaso hernaniarrek 3. egin zuten

Saioa eta Leire azpeitiarrek eraman zuten txapela.



Trikitilariak denak elkarrekin. Hernaniarrek: ezkerretik goian, Itziar, Maitane, Nahikari, (7.) Leire eta Itxaso. Behean, Estibaliz.

SEI trikitilari bikote eta dantzan jende gutxi atzo, Kriskitinak antolatutako txapelketan. Hiru bikote ziren hernaniarrek: Maitane Arregi eta Nahikari Añaña, Estibaliz Goikoetxea eta Itziar Jauregi eta hirugarren gelditu zuten Leire Alvarez eta Itxaso Ga-

samanes. Trofeoa, 12.000 pezeta eta lehen bikote hernaniararen saria eraman zituzten etxerako.

SAILKAPENA

Saioa eta Leire-----635 puntu
Maitane eta Aiora--630 puntu
Leire eta Itxaso-----614 puntu

Molotoff irratia ari da aurtengo irratsaioak lotzen

Goizean, arratsaldean eta gauean emitituko da aurtengo ere.

MOLOTOFF irratian iraila buelta honetan zehazten dira kurtso berriko irratsaioak. Goi-zeko magazinak (albistek eta musika uztartzen dituenak), 18 programak eta arratsaldeetako saio bereziak osatzen dute programazioa, baita aurreko egunetako saioen

errepikapenak ere.

10:00etan ekingo diote egunari magazinarekin 13:00ak arte. Ondoren, 16:00ak arte errepikapenak eta 18:00ak arte arratsaldeko programa. Gauean 21:00etatik 00:00etara saio mordoak, hain zuzen ere 18, iaz baino 6 gehiago. □

Hernaniko Kronika

Herriko egunkaria
Eskatu kioskoan

Gráficas
Hernani

Portu auzoa 6
Tel. eta Faxe 943 551 087
20120 HERNANI



Bidaiak

HERRIAK - MENDIAK - TURISMOA

HERNANI BIDAIK

Urbieta, 6

☎ : 943- 33 00 49 / 33 01 74
Faxe: 943 - 33 01 74
20.120 HERNANI

TAMENDI
AUTOESKOLA



BAIMEN
GUZTIK

LOIOLA HERNANI
ASTIGARRAGA

3. MAILAKO FUTBOL LIGA

Gol bat anulatuta berdinketa Lagun Onaken kontra

Sareko zulotik pasa zen baloia eta epaileak ateko sakea pitatu zuen .



Goxoak jarri ziren porteria atzean zeudenak gola baliogabetuta.

HERNANIARREK denboral-diko hirugarren berdinketa lortu zuten atzo Azeptiko Lagun Onak taldearen kontra. Hernaniarren gola Ibon Insaustik sartu zuen. Baita bigarrena ere, arbitroari iruditu ez bazitzaion ere. Bigarren denbo-

raren hasieran saietsetik erdiratu eta Insaustik atzelariari aurea hartuz *zost* barrura; sareak, ordea, zulo haundi samar bat zuen eta bertatik atera zen baloia. Hernaniarren gola ospatu bazuten ere arbitroak baliorik gabe utzi zuen. □

Hernani	Lagun Onak
1	1

ALINEAZIOA

Hernani: Arkaitz, Egoitz, Urkizu, Otxoa, Eusko, Igor, Aitor, Barandiaran, Arrondo, Iker eta Insausti. Ordezkoak: Beñat, Duran, Edu, Pablo.

Lagun Onak: Salegi I, Seguro, Joxean, Salegi II, Oskar, Maritxalar, Iruretagoiena, Del Sol, Aizpuru, Bixente eta Mansoa. Ordezkoak: Saizar, Igor, Davitxi, Bastida eta David

EPAILEA: MARTIN MARTIN

BESTE EMATZAK

·Gorengo maila:

Hernani 0 - Zumaiako 1

·Nesken liga:

Zarautz 0 - **Hernani 3**

·Gazteen liga nazionala:

Retuerto 4 - **Hernani 2**

·Gazteen ohorezko liga:

Urola 1 - **Hernani 3**

·Gazteen bigarren maila:

Hernani 4 - Lasarte2

·Kadeteen ohorezko liga:

Real Union 2 - **Hernani 1**

·Kadeteen bigarren maila:

Euskalduna 1 - **Hernani 4**

·Haurren ohorezko liga:

Hernani 2 - Eibar 4

Ehundaka lagunek omendu zuten Baldo atzo Tilosetan

Eneritz semeak kantatu zion bertsoa. Bukaeran manifestazioa egin zuten.

BALDOK Hernanitik kanpora, Tilosetan bildutako askok baino urte gehiago daramatzala (24) gogoratuz hasi zuen omenaldia Amnistiaren Aldeko batzordekideak. Bertsoa eta arrauna omen ziren bere zaletasunak. Zinegotzi kargua hartu zuenean esandako hitzak jarri eta Eneritzek bertsoa bota zion aitari "Nahiz ta kartzela beltz hartan utzi/zenuen askatasuna/ez dezu inoiz galduko zure/herriaren maitasuna". □



Eneritz aitari kantari

240 ikasle inguru hasiko dira gaur Udal Euskaltegian

UDAL Euskaltegiak gaur hasiko ditu euskara ikasteko klaseak. Iaz baino matrikulazio hobe izan du aurten, iaz 210 ikasle izan baitzituen eta aurten 240.

Bestalde, AEK-k datoren asteazkenean itxiko du bere euskaltegietan matrikulatzeko epea eta urrian hasiko ditu klaseak.

■ JASOTA BEZALA

Hernaniko PSE-EE Udaltaldea "triste" dago.

Aurreko Udal gobernuak onartu nahi zuen proiektu urbanistiko neurrigabea eta espekulatioa gelditzea herriaren "hazkunde ekonomikoa eta soziala etetzea da". Antzitolako Babes Ofizialeko proiektua hobetzea, bertako etxeetan, hernaniarrak sartzeko aukera gehiago izan dezaten, txarra da PSE-EEkoentzat. Euskara bultzatzeko zenbait laguntza ematea,

berriz, "abertzaletasun radikalaren helburu partidistak" da. Eta PSE-EEK Hernanin gobernatzen ez duelako, "EHK herriaren zati batentzat bakarrik gobernatzen du". Eta azkenik, eta arrazoi guztia dute, Hernanin "giza eskubideak etengabe zapaldu egiten dira", kupidagabe eta betidanik, baina espainolak ez garen euskaldunonak.

Josu Arrieta

LEHIAKETA

BA AL DAKIZU NON DAGOEN?



KRONIKAK proban jarriko zaitu. Ia Hernani zenbat eza-gutzen duzun benetan! Guk, astelehenero, herriko leku edo gauza baten argazkia aterako dugu eta zuk zein tokitan dagoen asmatu.

■ **Erantzunak:** *Kronikako* buzoian utzi: Larramendi 11, behea. Izen-abizenak eta telefonoa jarri.

■ **Epea:** astebete.

■ **Aurreko astekoa:** Karabelgo ur putzua.

■ **Asmatu dutenak:** Maddi Iradi, Dennis Sorondo, Marian Apezetxea, Joxe M^a Zelarain, Putre, Garikoitz Izagirre. (Saria gehien asmatzen dituenak eramango du)

✓ AUZOTARRAK ELKARTEA

Bihar bilera izango dute 19:00 Latxunbeko auzo elkartearen lokalean. Udalak martxan jarri dituen aurrekontuen prozesuan datorren aurrekontuetarako proposamenak lantzeko elkartuko dira. Udalean *aurrekontu parte hartzaile*etako bileren bigarren buelta urriaren 2an hasiko da eta ez guk jarri bezala aste honetan. □

AGENDA

◆ **ERAKUSKETAK**
Hernaniko Udalaletxea:
mende bat bizirik
Udaletxean bertan,
12:00-14:00.

Kuba orain hamar urte.
Argazki erakusketa
Zumardi jatetxean.

Juan Ramon Perez
Oreretarraren
Kuaadroak.xema taberan.

Argazki erakusketa
didaktikoa
Tolareak antolatuta
Biteri kultur etxean

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750

⊕ FARMAZIAK

▶ Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri, 11
☎ 943 553582
▶ Gauez: Diaz
Andoainen, Nagusiak
☎ 943 552087

⊕ ASTEARTEA

▶ Egunez: Irigoien
Elkano,2
☎ 943 552087
▶ Gauez: Irigoien
Elkano,2
☎ 943 552087s

⊕ ASTEAZKENA

▶ Egunez: Irigoien
Elkano,2
☎ 943 552087
▶ Gauez: Irigoien
Elkano,2
☎ 943 552087s